

Arantxa Uribe

HIK HASIKO KIDEA

## Euskara jakin nahi duzue ala ez?

**G**asteizko Hezkuntza Sailak derrigorrezko hezkuntzarako euskara, gaztelania eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat ikasi eta irakasteko hizkuntza eredu bakarra ezarriko duela adierazi du.

Beude lasai gaztelaniaren desagerpenarekin kezkatuta daudenak. Norbaitek, agian, zor die azaltzea 25 urtetako hizkuntza ereduaren esperientziak garbi erakutsi duela EAEko ikasle guztiek maila onargarrian menderatzen dutela gaztelania derrigorrezko ikastaldia amaitzen dutenean. Eta hori, ikasten duten ereduak edozein delarik. Are gehiago, D ereduaren ikasten duten ikasleek A ereduaren ikasi dutenen pareko emaitzak edo hobekak lortzen dituzte. Kezka, aldiz, euskarak sortzen du, sortzekotan.

Laburbilduz, gazteek eskolan, gutxienez, hamalu urte igaro ondoren, eskolatik irteten dira denak gaztelaniatuak, eta gehienak, euskaraz maila onargarrian komunikatzeko gaitasunik gabe.

Hori horrela dela erakutsi dute, gainera, Gasteizko Hezkuntza Sailatik sustatu diren hainbat probek. Azkenak, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoaren B1 eta B2 hizkuntza maila bateratuetan oinarritutako probek.

Ebaluazioen proben datuak, ebidentziak, mahai gainean, Hezkuntza Sailari zintzotasunez jokatzea dagokio, bederen.

Har dezagun beste edozein zientzia, medikuntza esaterako. Ikerlariek terapiaren bat edo botika-



ren bat eragingarria ez dela eta osasunerako kaltegarria dela frogatuko balute, laster baztertuko litzateke, zalantzarik gabe. Nekez imajinatuko genuke norbait egokiak ez direla frogatu diren horiek iraunarazteko aldarrikatzen eta exijitzen!

Eta gainerako zientzian horrela gertatzen bada, zergatik hezkuntzan ez?

*Derecho a decidir el modelo de nuestros hijos* taldea sortu da EAEn. Talde horrek, gurasoek beren seme-alabek zein hizkuntza eredutan ikasiko duten aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen du. Zehatzago esateko, A hizkuntza ereduak.

Legeak gurasoei aitortzen die beren seme-alabak zein hizkuntza eredutan hezi nahi dituzten aukeratzeko eskubidea. Horren gainetik, gurasoek beren seme-alabak ahalik eta egokien eta osoen hezteko betebeharrak dute, gurasoen betebeharrak horrek bermatzen baitu benetan seme-alaben eskubidea.

Nahi adina teoria eta hitz jokoetan gal gaitzke. Auzia sinplea da, sormuenera jotzea bezain sinplea: onartuko al lukete beren seme-alabek hezkuntza ibilbidea amaitzean matematika gutxi edo ia ezer ez jakitea?

Edo benetako gakoa ote da ez dutela nahi beren seme-alabek euskara jakitea?

Hori horrela bada, legea exijitzen duenak legea betetzea du zor, eta euskararen legea garbia da horretan: EAEko ikasle guztiek, euskara eta gaztelania jakin behar dute derrigorrezko ikasketak amaitzean! ■

«  
Onartuko al lukete beren  
seme-alabek hezkuntza ibilbidea  
amaitzean matematika gutxi  
edo ia ezer ez jakitea?  
»

## TXANDAN

Amatiño



Auskalo egia ote den baina mundu guztiak aho batez onartzen du euskal industria inguruko baina hobeto ari zaiola krisialdiari aurre egiten. Zergatik ote, ordea? Erantzunak hainbat izan daitezke baina bat, batez ere bat, euskal enpresaren nazioarteko merkatuaren aldeko apustua da.

Duela hamabost urte inguru euskal enpresarik aitzindarienak kanpoko merkatuetan saltzen ezezik, bertan kokatzen ere hasi zirenean, edozeinbat kritika jaso zuten, langile merke eta irabazi errazen bila euskal gizarteari bizkar ematen ari ote ziren.

## Segurtasun sarea

Geroztikako aurrenengo krisialdi latzak frogatu du, aldiz, merkatua nazioartean zabaltzearen abantailarik handiena ez dela fakturazioa gehitzea, arriskuak gutxitzea baino. Beste modu batez esanda, ahalik eta nazioarteko merkatu gehienetan saltzen duen enpresaren balio erantsia ez da bezeroak erruz gehitzea, bezeroak dibersifikatzea baino.

Hau da, arrakastaren muina ez da merkatu guztietan saldu ahal izatea, krisiak merkatu guztietan aldi berean jo ezina baino. Ondorioz, nazioarteko merkatuaren aldeko apustua ez da sorterriaren kaltetan, mesedetan baino. Segurtasun sarea alegia. ■